

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Gaztañadui kalea
itxita /08**

BERTSOLARITZA
**Finalerdia
azaroaren 16an /08**

LEINTZ GATZAGA
**Ludoteka
berriro zabalik /10**



DANTZARAKO GERTU

**Trikitixa hotsa entzun eta geldi egon behar?
Ez horixe. Euskal dantzak ikasi eta goazen guztiok plazara!**

HERRI ANTOLAMENDUA: EGUNEROKO ARAZOAK KONPONTZEN/4 • KIROLAK: KERMEN COLINO/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 18
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 19
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udalzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiaik 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Zapatuan 11:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

HITZALDIA KURTZEARRI ESKOLAN

Emozioen trataera landu gura dute aurten Kurtzebarri Eskolako arduradunek gurasoeekin. Hori dela eta hainbat hitzaldi antolatuta dituzte. Lehenengoa Maria Jose Ortiz psikologo eta EHU irakasleak emango die 2 eta 6 urte arteko umeen gurasoei. Martitzenean, hilak 4, izango da 18:00etan. Azaroaren 11n, ostera, Itziar Etxebarria etorriko da 6 urtetik gorako umeen gurasoei berba egiten.

DANTZA AFRIKAR IKASTAROA

Burkina Fasoko lagun batek dantza afrikar ikastaroa emango du. Eskolak martitzenetan izango dira, azaroaren 4an hasi eta abenduaren 9ra bitartean, Kurtzebarri eskolan. Izena emateko Azkena tabernara joan behar da urriaren 31 baino lehen.

75EKO KINTOEK AFARIA

75eko kintoek afaria egingo dute azaroaren 8an Taberna Berri jatetxean. Izena azaroaren 6a baino lehen eman behar dute interesatuek Taberna Berri jatetxean.

69KO KINTOEK AFARIA

69ko kintoek afaria egingo dute azaroaren 8an Taberna Berri jatetxean. Izena azaroaren 6a baino lehen eman behar dute interesatuek Taberna Berri jatetxean.

LORAMENDIRENAGENDA


JOSEBA GOTZON KANTARIA
Azaroaren 6an, eguena, Joseba Gotzon kantariak *Fotopoemak* diskoa aurkeztuko du herrian. 22:00etan udaletxe zaharrean izango da ekitaldia. *Fotopoemak* diskoa Joseba Gotzon kantariaren lan freskoena da. Hamar kantu batzen ditu eta kantuen berbak Mario Angel Marrokan Portugaleteko olerkariarenak dira.

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN

Kanposatua bukatuta Domu Santu egunerako

Domu Santu egunerako bukatuta zeukaten kanposantu berria. Kanposantu zaharra txiki geratu zelako egin zuten berria.

272 nitxo, 24 hilobi eta hezurtegi txiki batzuk egin zituzten kanposantu berrian. Nitxoak erosteko aukera eskaini zieten herritarrei, eta 98 lagunek erosi zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kukulumixo"

1.Hotzak, beldurrak...
kukilduta, kuxkurtuta.
—Mutiko hori kukulumixo dao.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
'Patas' Etxebarrieta eta Lierni Altuna
29an eta 1ean. Zorionak eta muxu handi bana, osabaren, izebaren eta lehengusuen partetik.



ARETXABALETA
Alaitz Agirre
1ean, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
June Gastañaga
1ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Leire Elizondo
1ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Mikel Crespo
4an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Gorka Urrutia
4an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

FOTOSINTESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Bosniara nahi'

Gerra da Bosnian, eta Nezir-en familiak ihes egin behar du. Hesean Bartzelonara iritsi dira, baina Senad, aita, barkuan sartu ezinda geratu da. Nezir 15 urteko mutikoa eta bere aita dira kontaketa garrantz honetako protagonista nagusiak; biak familia elkartzeko ahaleginetan ibiliko dira. Beren bideak kapituluka txandakatu ditu egileak elkarbanatze horren mina adierazteko, eta denboran aldi berean, baina espazioan oso urruti gertatzen diren ekintzak elkarlotzeko.

Drama izugarria eraiki du Igerabidek oraingo honetan, gerraren alde gogorak azalduz, nolabait gerraren zentzugabekeria agerian uzteko asmoz.



BOSNIARA NAHI

Juan Kruz Igerabide
Aizkorri, 2003
100 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

LEIBAR arrandegia



Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68




Matikua jatetxea

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

ATREBENTZIAEZPADA / Preferente mailako taldeak ez dau partidurik irebazten. Arbitruena da kulpie?




ANA MARI ARETXAGA
Langillie



JOSE LUIS TXINTXURRETA
Langillie



NEREA GARCIA
Langillie



BIXETEN ETXANDIA
Jubilaue



JASONE URIBESALGO
Jubilaue



EDUARDO ALTUBE
Langillie

Duda barik. Lotsabako galantak die arbitruak. Aurten lau partidu lapurtu duskue daguekene. Ez dau deretxorik hori egiteko. Lotsabako hutsak die danak.

Kulpa apurren bat eukiko daue, baiñe ez dana. Arbitruak hutsen batzuk egin dittue. Hala eta be, golak egittie kostau egitten jako UDARI, eta hola ezin leike partidurik irebazi.

Baietz uste dot. Partidu batzutan, gaiñera, garbi ikusi da hori. Nik uste dot UDARIko mutilek lan ona egitten dabitzela, baiñe arbitruen erabakixek zeresan haundixe euki daue oin arte.

Baietz uste dot. Kulpa dana be ez daue arbitruak eukiko, baiñe azkenaldixen partiduetako azken miñutuetan kendu egin duskue garaipena eskuetatik. Kalte haundixe egitten duskue.

Ez dakit ba, arbitro harro batzuk etorten jaku, baiñe hori baiño problema haundixae dauela atzien uste dot. Erikon fansa naz ni, baiñe aurten golak ezin sartute dabil; etorriko da bueltie.

Bai. Hiru partidutan, Berion, Elgoibarren eta Ordizian kontrako partiduetan garbi ikusi da hori. Atxabaltako jokalarixek fama txarra daukie, eta hori igerrri egitten da.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK OINEZKOENDAKO BIDEA ALA AUTOBIDEA? Durana kalea oinezkoendako bidea da. Izan ere, galtzada-harriekin egindako bidea da eta kale osoan ez dago ez semafororik ezta zebrabiderik ere. Hori kontuan hartuta, zelan da posible kale osoa autoz beterik egotea? Zelan da posible auto horietako batzuk abiadura handian pasatzea? Oinezkoendako bide izanik, ulertezina! /A.L.

ETABARRUAN...

ANTOLAMENDUA /04

EUSKAL DANTZAK /05

KIROLAK /06

Udalak sail berria du

Herri Antolamendua eta Segurutasuna sailak udaltzainen bitartez egingo du lan herrian.

Dantza ikastaroa abian

Nagusiendako euskal dantza ikastaroa antolatu du ikasturterako Leizarra Musika Eskolak.

Kerman Colino karate jokalaria

Gipuzkoako Karate Txapelketan hirugar geldi eta gero, orain zein proiektu dituen esan digu.

ASTEKODATUA

5

PUNTU DITU UDAKO TALDE NAGUSIAK

UDAKo preferente mailako taldeak bost puntu besterik ez du sailkapen orokorrean. Hala, azken bigarren postuan dago Hamaika Bat taldearekin berdinduta. Orain arte 6 gol egin ditu eta 13 jaso.

BESTEKEESANA


“Hemengoekin alderatuz Portugaleko errepideak oso eskasak dira, horregatik beti beldurrez ibiltzen gara.

Errepideak ez ditu inork ezagutzen, horregatik auto gidariok zer aurkituko dugun ez jakinda beldurrez joaten gara. Klimatologia-ri asko begiratzen diogu. Beharbada lehenago pasatako bide batean bihurgunea non dagoen jakiten dugu, baina, bihurgunea hori zein egoeratan aurkituko dugun ez dago jakiterik.

Gure bailaran Gatzaga, Kanpanzar eta Ariabango bideak dira arriskutsuenak. Kanpoan, berriz, Deskarga, eta Beasaindik Donostiara bitarteko autobidea dira txarrenak. Arreta handiz ibili behar da gune horietan.

MARTIN ZALOÑA
Arrasate Irratia/03-10-28

HERRITARRENBERBAK / Resu Abasolo



*Otalazelai,
Behobia
balego*

Tipi-tapa, tipi-tapa... gaur bakarrik entrenatu behar. Tipi-tapa, tipi-tapa bihar koadri-lan. Tipi-tapa, tipi-tapa... Kontuz egunotan korrikalari-ekin. Atxabaltak hiri modernoaren itxura hartu du. Goizetik gabea eta gabez ere edozein bazterretan, errepide-tan, kirol guneetan adi ibili beharra dago garai honetan. Ez zarete konturatu edo? Korrikalari asko Behobia prestatzen ari da eta honek lehentasun osoa du. Lanetik azkar alde egin beharra dago, medikuari azkeneko bisitak, badaezpada beste oinetako pare bat, Urkuluri azkeneko bueltak kronometroa bistan dela, ospakizunetatik ihes erritmoa galtzearen beldur...

Bergaran Behobia txikia antolatu ere egin dute norberak aurrekusi dezan Behobian egingo duen denbora eta lasaiago joan benetako lasterketa egunean.

Otalazelaiko krosak ez du

horrelako emoziorik sortzen. Akaso, Donostian ez dagoelako? Koloreak falta zaizkiolako? Hamahiru kilometro direlako?...Esnobismoa, zaletasuna, norberaren egoa edo beste zer ote dago Behobiako lasterketaren eta Otalazelaiko krosaren atzetik?.

“Otalazelaiko krosak ez du horrelako emoziorik sortzen. Akaso, Donostian ez dagoelako? Koloreak falta zaizkiolako?”

Komunikabide-ek xehetasun osoz esango dute Behobiaren ondorengo egunean zenbat atxabaltar zeuden hasieran eta bakoitzak ze denbora egin duen, animoso bukatu dutenek urtebete lehenagotik prestakuntza hobeto bideratzeko eta hutsegini dutenek beste zerbait erabaki dezaten.

Burutik pasatu al zaizue beste batzuk berdina egingo balute? Adibidez abesbatzak herriko ekintzei huts egin eta Tolosako Abesbatzen lehiaketan bakarrik parte hartuko balu? Edo txistulariek ohiko dituzten diana, jai, ospakizun... alde batera utzi eta Donostiako Alardean bakarrik parte hartuko balute?

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Kontu illunek

Negue aillegu jaku udazkenik ixte izen barik. Neguko illuntasune eta hotza dauzkogu gainien, eta zer egingo dotzau ba! Egualdixe bakarrik ez, kontuek be illunek dakart. Izen be, joan zan zapatuen bonberuek izen gittuen Durana kalien etxebizitza bateko tximinixiek sue hartu euela-eta. Sustue izen zan gehixau azkenien. Beste batetik mutil bat detenidute erueten ikusi euien herritar batzuk. Antza danez emaztiekin ez zan bape ondo portau. Holakuei zer? Ez daue komentari-xorik be merezi.

Preferentien maillan dauen UDAko taldiek be notizia txarrak besteik ez dusku emuten; arbitruen kulpie ei da baiñe ezin irabazi. Hala ta be notizia on batekin bukatu gure dot Igor Gordobil entrenadore aitte izen da-eta. Zorionak eta aurrera!

HERRI ANTOLAMENDUA ETA SEGURTASUNA/ Herriko lau udaltzainek izango dute arazoak konpontzeko ardura

Herri Antolamendu eta Segurutasun Sailak herritarren eguneroko arazoak konpondu gura ditu

AMAGOIA LASAGABASTER

Agintaldia hasi eta Udalean dauden sailak banatu zituztean, beste sail bat sortzea erabaki zuten: Herri Antolamendu eta Segurutasun Saila. Felis Beltran de Heredia zinegotzia da, eta udaltzainen bitartez arduratuko da herriko arazoei irtenbidea topatzen.

Sail berria dugu Udalean: Herri Antolamendu eta Segurutasun Saila. Ez du aldaketa handirik ekarriko herrira, baina eguneroko arazo txiki horiek konpondu gura ditu herritarren bizi kalitatea hobetzeko asmoarekin.

HERRIKO ZIRKULAZIOA

Herri barruko zirkulazioa izango da zuzendu gura duten arazoetako bat: Durana kalea itxi ostean, automobilak gora eta behera, zebraideetan eta espaloietan autoak edozein modutan aparkatuta, motoak inolako neurri barik batez ere uda partean... Horiez gain, arazo handiagoak dituzten zona batzuk ere badaude; Solohandi auzo inguruko errepidea autoz gainezka, esate baterako.

Zirkulazioaz gain badira sail berri horren ardurapean dauden beste kontu batzuk: "Txakurren kontua ordenantza bidez arautu gura dugu, eta fatxadetan jartzen diren publizitate kartelendako ere beste ordenantza bat atera gurako genuke", dio Felis Beltran de Heredia zinegotziak. Bestalde, etxeetan egiten diren lan txikiak zaindu gura dituzte.



Zirkulazioak sorrarazten dituen arazoak konpontzen dituzte udaltzainek, eta ordenantzak betearaztea ere euren ardura da.

HERRITARREN HEZIKETA

Bandalismoarekin zerikusia duten gero eta kexa gehiago jasotzen dituzte Udalean: zaharren egoitza inguruan gero eta gertakari larriagoak, patineteak direla-eta herritarrek gogaituta... Ezin izango diote erantzuna samur eman, baina argi dute gurasoen inplikazioa beharrezkoa izango dela.

Eguneroko arazoak konpondu beharra dago, zalantza barik, baina arazorik sortu ezean konpondu

beharrik ere ez. Horretarako giltza heziketa da, eta hori landu gura du Herri Antolamendu eta Segurutasun Sailak. Bai eskoletan, bai herrian segurutasun-arauen berri emateko asmoa dute besteak beste. Herritarrek interesik jarriko ote duten ez dakite, baina saiatu beharra dutela bai.

LAU UDALTZAIN

Lan horiek guztiak udaltzainek zaindu eta betearazi beharko diz-

kiete herritarrei. Lau ditugu herrian: Martin Garai udaltzainburua, Alberto Cillaurren, Iban da Silva eta Ritxi Briñas, azken hori Jose Nuñezen ordeiz. Lau izanik argi dago lan guztiak egitera ezin direla heldu, ez behintzat ondo; hortaz, denbora kontua izango da udaltzain gehiago hartzea. Oraingoz, gainera, ez dute aste bukaeretan eta gaueetan lanik egiten baina aurrerago hori ere pentsatu beharreko zerbaite izango dela dio zinegotziak.

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Aretxagazeta

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Lubia
oinetakoak

zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Jou Diaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

DANTZA/ Hogei bat herritar dabilta dantza ikastaroan, eta gehienak gurasoak dira

Euskal dantzak ikasi gura dituenak abian du ikastaroa

M.A.

Leizarra Musika Eskolak euskal dantzen ikastaroa jarri du abian aurtengo kurtsoan. Ikastaroa ez da umeendako izango, nagusiendako baizik. Aitor Villareal irakaslea eguenetan taldetxo batekin batzen da eta egubakoitzetan beste batekin. Oraindik badute lekua.

Dantzan ikastera joaten dira ume eta gaztetxo asko, eta orain, nagusiak ere bai. Leizarra Musika Eskolak jarri du abian ikastaroa, eta ize-na eman duten gehienak gurasoak dira.

GEHIENAK GURASOAK

Lehen, gurasoek erakusten zieten seme-alabei dantzan, ipuinak edo euskal kanta zaharrak erakusten zieten moduan. Gaur egun, ostera, umeak musika eskoletara doaz dantzan ikastera, eta gurasoek, umetan dantza taldetan ibilitakoak izan ezik, ez dakizkiete euskal dantzak. Hori dela eta, Leizarra Musika Eskolak dantzak ikasteko aukera eskaini gura izan die nagusiei, eta 20 lagun inguru animatu dira, gehienak gurasoak.



Larrain dantza erakusten hasi zen egubakoitzean Aitor Villareal irakaslea.

ORAIN LARRAIN DANTZA

Euskal dantzak ikasteko bi taldetxo osatu dituzte: hamabi lagun eguen ilunkaran batzen dira eta beste bederatzik egubakoitz arratsaldean. Gasteizen bizi den Aitor Villareal irakasleak ematen dizkiete eskolak, eta dagoeneko ika-

si dituzte dantza batzuk: *Txulalai*, *Zazpi jausi...* Joan zen astean, berriz, Larrain dantzaren lehen pausoak ikasi zituzten. Oraingoz ez dute jendaurrean ekitaldirik egiteko asmorik. Beste norbait animatzen bada egubakoitzeko taldetxoan lekua egiteko gertu daude.

ARGAZKI-ALBISTEA



Batzordekide berriak ditu Aretxartek

Joan zen astean egin zuten batzar orokorra Aretxarte elkar-teko kideek. Hain zuzen ere, Zuzendaritza batzardea aldatzea tokatzen zitzaien, eta lau denda hauetako ordezkariak sartu ziren: Leibar arrandegia, L-10 ile apaindegia, Zainuz Fitness zentroa eta Mari Carmen oinetakoak. Lehendik, ostera, Txillarri eta Iber dendetako ordezkariak daude. Bestalde, elkar-teko paper kontuak egin eta batzordeari lana arintzeko, langile bat hartzea adostu zuten. Bukatzeko, azaro erdi inguruan urteko azken kanpaina hastekotan geratu ziren.



Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

Enplegu Zerbitzua ■

EUSKO JAURLARITZAKKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAK
DIRUZ LAGUNDURIK ETA EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZIATURIK

EMAKUMEENTZAKO SOLDADURA IKASTAROA

Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin, lanerako prestakuntzako ekintzen artean emakumei zuzendutako soldadura ikastaro bat antolatzen ari da, ezaugarri hauekin:

IKASTAROAREN HELBURUA: soldadura arloan emakume talde bat trebatzea, lanpostu bat lortzeko helburuarekin.

NORENTZAT: emakume langabetuentzat.

IKASLE KOPURUA: taldea gehienez 15 ikasle osatuko da.

TOKIA: Olaburu Enplegu Zentroa, Zubillaga auzoa (Oñati)

ORDU KOPURUA: 400 orduko ikastaroa

ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 14:00etatik 18:00etara.

NOIZ: 2003ko azaroaren 17tik 2004ko apirilaren 30era arte.

EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZIATUA

DIRULAGUNTZA ZEINEK EMANA



IZENEMATE EPEA: 2003ko azaroaren 7ra arte, Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzuan. Tel. 943 79 09 00.

KERMAN COLINO/KARATEKA

"Astean entrenamendu bi bakarrik egitea ez da nahikoa izaten"

A.L.


Gipuzkoako Karate Txapelketan brontzezko domina irabazi zuen Kerman Colinok. Hala ere, denboraldia hasi besterik ez du egin. Aurten federazioko txartel ofiziala atera eta gerriko urdina jantzi gura du.

Hirugarren geratzea ez da gutxi. Zelakoa izan zen txapelketa?

Lehenengo txapelketa ofiziala izan zen niretako, baina bestelakoetan ibilia naiz; hortaz, eskarmentua baneukan ordurako. Edozelan ere, nahiko urduri nengoela gogoratzen dut. Gertatzen zaidana da entrenamendu gutxi egiten ditudala. Astean entrenamendu bi bakarrik egin da ez da nahikoa izaten. Gainerako lehiakideek astean bost bat entrenamendu izaten dituzte.

Aurkari gogorak ziren?

Bai. Gehienek gerriko marroia zuten eta nik berdea daukat. Tarte horretan, gainera, gerriko urdindunak daude; hortaz, ni baino dezente maila altuagokoekin jokatu nuen. Alde horretatik, oso pozik nago egin-



A.L.

"Orain arte futbolearen ere jokatzen nuen, baina, aurten buru-belarri sartu naiz karatean"

dakoaz; txapelketa polita egin nuela uste dut.

Ander Hernandez aretxabaletarra ondoan izan zenuen. Horrek lagundu zizun?

Duda barik. Ander orain dela bost hilabete hasi zen karatea egiten eta hura ni baino urduriago zegoen. Hala ere, biok batera egoiteak lasaitasuna eman zigun.

Zelan hasi zinen karatea egiten?

Askorik pentsatu barik, orain dela lau urte hasi nintzen. Orain arte futbolearen ere jokatzen nuen, baina aurten karatean sartu naiz buru-belarri eta futbola albo batera utzi dut.

Zein helburu duzu aurten?

Federatu txartela atera gura dut, eta horren arabera erabakiko dugu zein txapelketatan hartzen dudana parte. Bestalde, gerrikoz aldatzeko proba egin gura dut Aste Santu inguruan. Izan ere, nire helburua da gerriko urdina ateratzea.

Zer du karateak azkenaldian horren arrakasta handia izateko?

Umeek uste dute filmetan azaltzen den karatea egiten dugula, baina hori ez da horrela izaten, eta hasi bezain azkar utzi egiten dute. Karateak defentsarako balio duen diziplina da.

FUTBOLA

UDAKo zuzendaritza batzordeko kideak eta jarraitzaileak haserre epaileen erabakiekin

Aurreko aste bukaeran UDAKo preferente mailako taldeak galdu egin zuen Ordiziaren aurka (3-2). Azken minutuetan epaileak adierazitako penalti batek eman zien garaipena Ordiziakoei. Horren harira, UDAKo zuzendaritza batzordeko kideek eta jarraitzaileek diote azkenaldian epaileen erabakiek gutxienez zazpi puntu kendu dizkietela. Eta zera eskatzen dute: epaileek talde guztiei tratu bera ematea.

FUTBITOA

Futbito txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu eta gero, Fontasport da liderra

Joan den zapatuan, hilaren 25ean, jokatu zuten Arlutz futbito txapelketako lehenengo jardunaldia. Lau partidu jokatu zituzten, eta talde batek, Peña Hugok, hain justu ere, ez zuen jokatu. Horrela, Fontasport taldea jarri da sailkapeneko buru. Fontasport-en ondoren, bigarren postuan DDK dago eta hirugarren, Kemen. Sailkapeneko azken postua, berriz, Lusos taldearendako da.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Hamaikak Bat
Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA-Real Sociedad

Infantilak-Ohorezko Liga.

Zapatua. 11:00. Ibarra.

PILOTA

Murumendi-Aretxab.

Gazteak.

Egubakoitza. 19:30. Iturriondo.

Murumendi-Aretxab.

Gazteak.

Egubakoitza. 20:30. Iturriondo.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ordizia 3 UDA 2

Preferentea.

Elgoibar 3 UDA 2

Gazteak. Ohorezko liga.

UDA 1 Eskolopios 2

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 8 Eibartarrak 0

Lehenengo mailako kadeteak.

Almen/UDA 2 Mondra 1

Emakumezkoen liga.

Zumaiako 4 Almen/UDA 3

Emakumezkoak. Futbol 8.

Hernani 0 UDA 1

Infantilak. Ohorezko liga.

Aloña 2 UDA 1

Lehenengo mailako infantilak.

PILOTA

San Esteban 22 Aretxab. 8

Bigarren mailako nagusiak.

Intxaurrondo 19 Aretxab. 22

Lehenengo mailako nagusiak.

Aretxabaleta 6 Murumendi 14

Bigarren mailako gazteak.

KING

ORAIN ESKORIATZAN

ARETXABALETARRAK MUNDUAN

MIREIA OLAVE


24 URTE / IKASLEA / LOVAINA (BELGIKA)

“Nork bere nortasunari eutsi gura izateak batzen gaitu flandestarrekin”

MIRARI ALTUBE

Hilabete bi eskas daratza Mireiak Belgikan. Ikastera joan da, Materialen Ingeniaritzan masterra egitera, hain zuzen, eta uztaila bitartean izango du bizilekua Belgikako Lovaina hirian: “Ez da hiri handia, 90 mila biztanle inguru ditu, baina horietatik 25 mila ikasleak gara. 1425. urtean sortu zuten unibertsitatea, eta tradizio handia dauka”, dio Mireiak, “Arenberg izena duen gaztelu ikusgarrian hartzen ditut eskolak”.

Unibertsitatearen inguruan antolatutako hirietan ohikoa da ikasle giroa izatea, bai egunez, bai gauez, eta Lovainan ere halaxe gertatzen da: “Bertako jendea oso atsegina da, eta ingelesez berba eginda herritar guztiak ulertzen dute; izan ere, kanpoko ikasleekin bizi izatera ohituta daude”, dio. “Beste hiri askotan bezalaxe, Lovainan ere eguen gauak parranda gauak dira. Bai ikasle belgikarrik, bai atzeritarrik parrandan atera-




tzen dira, eta goizalde arte egoten dira zabalik tabernak. Lovainak badu, gainera, oso garrantzitsua: Stella Artois”. Belgikak bi alde ditu eta Lovaina Flandesko hiri bat

“Beste hiri askotan bezalaxe hemen ere eguen gauak parranda gauak dira”

da. Hori dela eta, bertako biztanleek eta euskaldunok badugula antzekotasunik iruditzen zaio Mireiari: “Bertakoendako oso garrantzitsua da flandestarra izatea, eta horrek batzen gaitu; hau da, nork bere nortasunari eutsi gura izateak”.

Oso gustura dago Mireia Belgikan, ez dago zalantzarik, baina lagunak eta senideak faltan sumatzen dituela esan digu; ez hori bakarrik, baita etxeko janaria ere.

HURRETIK



Iosu Arenaza

Iosu harategia eta kroisandegia

Bixertik aurrera Iosu Harategi eta Kroisandegiak nagusi baxerik eukiko dittu. Osasun arazuek erretirue hartzera bihurtu daue, eta losuk penaz esango dutzo agur 30 urteko lanbidiei.

Zenbat urte karnizero lanien? 30etik gora.

Jubilau egingo zara?

Jubiletako 9 urte falta jat; osasun arazuegatik itxiko dutzet lan egittiei.

Zela hasi zitzen karnizero?

Eroskin hiru bat urte egin nittuen eta gero, neure konture hasi nitzen. Lokal honetara 90eko azaruen etorri nitzen.

Eta karnizerixiekin batera tabernie jarri zeuen...

Bai; izen be, okeliekin bakarrik ez neuken etorkizunik. Hurrengo jeneraziñue okelatan bakarrik ez da sartuko denda txiki baten, eta barrure ekarteko beste zeozer emun biher jako: pintxuek, aurrez egindeko janarixek, txorixuek...

Zeu hasi zitzen herrixen lelengo aurrez egindeko jana saltzen.

Bai, eta jente asko dator horren bille.

Okela ona jaten dogu herrixen?

Bai.

Ze dozu gurau, okelie ala arraiñe?

Okelie, duda barik; nik egunero jaten dot txuleta bat.

Zein da zure lan ordutegixe?

16 ordu egunero, askotan 18 be bai. 05:15ak ingurureko lanien ibiltten naz.

Egixe da urtien bi egunien bakarrik hartzen zeuela jai lehen?

Bai egubarri eta urtebarri egunetan. Oin domeketan be itxi egitten dot, ez dau inork lanik egin gure-eta.

Oporrik hartzen dozu?

Azken bi urtietan hartu dittut, baiñe 20 urtien hartu barik egon naz.

Erretirau ostien, zer?

Ez dakit, ez dauket planik egindde.

M.A.

NIREBIDAIAHURA / Imanol Carmona

San Fernando (Cadiz) / 2003ko apirila


Imanol Carmona, 26 urteko aretxabaletarra, kapaz da bere idoloagatik mila kilometro baino gehiago egiteko. Aurten, apiril inguruan, lau eguneko bidaia egin zuen Andaluziara. Baina, ez hango hondartzetara... Camaron de la Isla flamenko abeslari ezagunaren hilobia ikustera joan zen Imanol.

Imanolek hainbat aldiz egin du Andaluziarako bidaia. Gurasoak Extremadurakoak ditu, eta beharbada horrek bulztatu zuen Espainiako Estatu hegoaldea ezagutzera. Poliki-poliki flamenkoa gustatzen hasi zitzaion, eta Andaluziako eta Extremadurako *tablaos* guztiak bisitatzen hasi zen.

Apirilean egindako bidaia, baina, berezia izan zen. Lagun batekin autoa hartu eta Huelvako Errozio egunera joan ziren lehenengo. Hango esperientzia ez zen oso ona izan eta denborarik galdu barik San Fernandorantz egin zuten, Camaronen jaiolekura: “San Fernandon lagunak ditut eta gustura sentitzen naiz; lehenengo eta behin, La Venta de Vargas izeneko tabernara joan ginen, hantxe hasi zen-eta Camaron abeslari moduan. Museo antzeko bat jarri dute; gainera, jabea Camaronen lagun-mina izan zen”.

Pasarte politena, arraroa bada ere, kanposantu baten bizi izan zuen. “San Fernandon Camaronen hilobia bisitatu genuen. Lore sorta eskuan nuela gizon bat hurbildu zitzaidan, loreak norentzako ziren galdetuz. Camaronendako zirela erantzun, eta hark Camaronen anaia nagusia, Manuel, zela esan zidan. Harekin berriketan egitea hunkigarria izan zen; gainera, Camaronen alaba aurkeztu zidan”.


Bidaiaiko gainerako egunak Imanoli gehien gustatzen zaiona egiten pasatu zuten. “Flamenko jaialdi eta *tablaos* guztietan ibili ginen, Utreran, La Linea de la Concepcionen...”.



“La Venta de Vargas-en hasi zen Camaron abeslari moduan”

“Camaronen anaia nagusia eta alaba ezagutu nituen”

A.L.



Imanol, Camaron de la Isla abeslari ezagunaren hilobi ondoan.



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 31 / 143. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Gaztañaduiko hainbat etxe bota arren, Zubiatego labea bere horretan utzi dute

AMAGOIA LASAGABASTER

Oraingo astean, martitzenetik eguaztenera bitartean Gaztañadui kaleko 27, 29 eta 31 zenbakidun eraikinak bota dituzte. Eta hutsune ederra gelditu da gune horretan. Hala ere, ez luzerako: enpresa eraikitzaile batek 32 etxebizitzeta eta 40 garaje egingo ditu.

Gaztañadui kaleak aldaketa ikaragarria izan du astean. Egun biren bueltan, hilaren 28tik 29ra bitartean, hainbat eraikin bota dituzte: 27, 29 eta 31 zenbakidunak, hain justu. Eraispena kontrolpean egin dute, baina hala ere, arrisku guztiak baztertzeko helburuarekin, martitzenean eta eguaztenean kale hori itxita egon zen 08:00etatik 19:00etara.

ZUBIATEKO LABEA

Gaztañaduiko eraikinen eraispenean herriko historia zatitxobat bota dute. Zorionez, baina, ez guztia; izan ere, Zubiatego labe ospetsua, monumetu historiko izendatua, bere horretan utzi dute. Alkatearen esanetan, eraispenean lanak egin aurretik labea Ibarraundi baserri ondora eramatea



Eraispenean lanak martitzenetik eguaztenera bitartean egin zituzten, eta tarte horretan errepeidea itxita egon zen.

pentsatu zuten. Gauzak horrela, lan horiek egiteko aurrekontua eskatu zuten, baina garestiegia zen, eta, horren ondorioz, dagoen lekuan uztea erabaki zuten.

Bestalde, aroztegi eta perratoki izandako eraikinak betiko desagertu dira. Alkatearen kalkuluen arabera XIX. mendeko eraikinak ziren hirurak.

ETXEBIZITZA BERRIAK

Horren harira, enpresa eraikitzaile batek gune horretan 32 etxebizitzeta eta 40 garaje egiteko proiektua aurkeztu du Udalean.

Zubiatego labea Ibarraundira eramatea pentsatu zuten hasiera baten Udalak

Aroztegi eta perratoki izandako eraikinak betiko desagertu dira

Gune horretan 32 etxebizitzeta eta 40 garaje egiteko proiektua aurkeztu dute Udalean



Mazmelan izan ziren Ezkurtxo eta bere lagunak

Joan den zapatuan, hilaren 25ean, Ezkurtxorekin Mazmelan izan ziren bidaian Eskoriatzako umeak, eta ez, guk esan genizuen moduan, Zari-mutzen. Eguraldi ederrak lagunduta, guztira 150 neska-mutiko elkartu ziren. Trenean bidaia egin eta gero, Arizmendi-Almen guneko gazteen laguntzarekin ipuin kontaketa saioa izan zuten. Dagoeneko zortzigarren aldia da horrelako ekimen bat egiten dutela. Eskoriatzako elizate guztiak ezagutzeko aukera eman die Ezkurtxok ume eta gurasoei.

LABUR

Gripearen aurkako txertoa 610 herritar inguruk hartu dute

Gaur, egubakoitza, izan da gripearen kontrako txertoa hartzeko azken eguna. Osakidetza kanpaina hasi zuenetik jende ugari pasatu da anbulatoriotik. Martitzenean, hilak 28, jasotako datuen arabera, aurten 610 herritarrek hartu dute txertoa. Horiestatik, gehienak, anbulatorioko arduradunaren esanetan, 65 urtetik gorakoak izan dira. Gainera, ohiturei jarraituz, eskoriatzarrak lehenengo astean joan ziren txertoa hartzera. Orduan, 194 lagunek hartu zuten.

BERTSOLARITZA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerdia jokatu da Eskoriatzan

AINTZANE GARDOKI

Datorren azaroaren 16an Eskoriatzako kiroldegian jokatu da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerdia. "Hiru finalerdi jokatu dira eta lehena Eskoriatzan jokatu da. Duela hilabete batzuk Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari egin zion eskaera. Hasiara baten final-laurden bat eskaini zigen elkarteak, baina kiroldegiak 1.100 lagun ingururako lekua duenez, finalerdia egiteko aukeraz galdegin genion. Baita lortu ere!", esan digu euskara teknikari Mari Carmen Arrietak.

Asteburu honetan, Eskoriatzako ohiko salmenta lekuetan jarriko dituzte salgai finalerdirako sarrerak. "Seguruenik horrelako txapelketa batera

Gipuzkoa osotik etorriko da jendea. Normalean sarrerak azkeneko astean jartzen dira salgai, baina guk eskoriatzarrak animatu gura ditugu. Nahiz eta oraindik bi aste falta, giroa berotu gura dugu, eta, era berean, eskoriatzarrek bertso saio eder batekin disfruta dezatela", gaineratu digu Mari Carmenek.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa joan den irailaren 26an hasi zen. 71 bertsolari hasi ziren lehian; horietatik asko, gainera, oso gazteak dira eta lehenengo txapelketa dute. Bost debagoindar parte-hartzaileen artean. Azaroaren 16an, 17:00etan, sailkatuko diren lau bertsolarietaz gainera, dagoeneko sailkatuta dauden Aitor Mendiluze eta Maddalen Lujanbio ere izango dira bertsoan.



GOIENKARIA

Finalerdirako sarrerak dagoeneko salgai daude gaurtik aurrera ohiko lekuetan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 77 20 25
Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	943 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, Gazte Asanbladak antolatuta kontzertua egingo da Gaztetxean 21:30ean. Parte hartuko duten taldeak *Nuevo Catecismo Católico*, *Leihotikan* eta *Klineks*.

IPUIN KONTAKETA

Rai kontalaria azaroaren 4an, liburutegian 18:00etan.

HITZALDIA

Encuentro de mujeres de negro contra la guerra hitzaldia eskainiko du Raquel Encinak, azaroaren 6an, kultura etxean, 19:00etan. Antolatzailea, Amuska.

AXTROKIRENAGENDA

IRUNBERRIKO IKASTOLA

Urriaren 19an Nafarroa Oinezen gertatutakoak direla-eta, Axtrokik Irunberri ikastolari laguntzeko dei egin gura du; horretarako jo banketxe edo aurrezki kutxetara.

TXUTXU-MUTXUA



Perretxiko erakusketa paregabea plazan

Luis Ezeizako Guraso Elkarteak perretxiko bilketa egin zuen joan den domekan, hilak 26. Goizean goiz irten eta inguruko baso eta zelaiak urratsez urrats miatu zituzten. Ez zuten gainera, lan txarra egin. Izan ere, guztira 145 perretxiko mota bildu zituzten. Gero, erakusketa egin zuten Herriko Plazan. /A.L.

LABUR

Arabako Odol Emaileen Elkarteak 37 lagunen odola batu zuen urriaren 22an

Urriaren 22an, Arabako Odol Emaileen Elkarteak kideak HUHEZIN izan ziren. Unibertsitateko areto nagusian jarri zuten odola emateko zentroa, eta egun osoan jardun zuten han. Jende gehien goizean hurre-ratu zen; orduan 26 odol emate izan ziren. Horietatik, 11k lehenengo aldiz eman zuten odola. Arratsaldean, bestalde, 11 lagunek eman zuten odola eta 6 izan ziren berriak. Joan den urteko datuekin alderatuz, aurtun jende gutxiagok eman du odola; iaz 61 odol emate izan ziren.

Astehelenean **KAKI** denda berriaren**INAUGURAZIOA**

Emakumeentzat arropa eta etxerako opariak.

Idalga 15 - ESKORIATZA

**EDURNE**ESTETIKA
ZENTROA

Informa zaitez!



Ile gehiegi eta gainera ile bihurria?
Depil Plus sistemarekin zure arazoa
ordutan konponduko dugu...

Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilita

Aingeruardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA

Ze barri?Izan zaitez zeu
ere berriemaile!

Zure taldearen,
auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa
emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



Gurel elkarteak dauka ludotekaren ardura, eta Aina Olabarrieta lezamarra hartu du umeekin egoteko.

M.A.

Martitzenean egingo du Gurel elkarteak urteko batzar orokorra

A.L./M.A.

Martitzenean, azaroaren 4an, egingo du Gurel gurasoen elkarteak urteko batzar orokorra. Ikasturtean egin gura dituzten ekintzen berri emango dute, eta batzordekide berriak aukeratuko dituzte. Eta Jaione Vitoria presidentearen ordezkoa izendatuko dute.

Gurel elkarteko bazkideek batzar orokorra daukate martitzenean. Hainbat gai eztabaidatuko dituzte eta batzordekide berriak izendatuko dituzte, baita presidentea ere.

BATZORDE ALDAKETA

Orain dela lau urte jarri zuten abian Gatzagako gurasoek Gurel elkarte. 39 bazkide zituen orduan eta 35 aurten. "Gurasoen elkarte" dela esaten dugu, baina amok

bakarrik hartzen dugu parte", dio Ana Esnal batzordekideak.

Lau lagun daude batzordean: presidentea, idazkaria eta kide bi. Martitzenean, Jaione Vitoria presidenteari eta Bixen Azkoaga kideari agur esango diete, eta beste bi lagun aukeratuko dituzte batzordean sartzeko.

Batzordeak, bestalde, ikasturterako zehaztu dituen ekintzen berri emango die batzartutakoiei:

Jaione Vitoria presidenteari eta Bixen Azkoaga batzordekideari agur esango diete

ludoteka, Gabonetako ekintzak, udalekuak... Aurten, gainera, urteroko ekintzez gain, beste batzuk ere egin gura dituzte; negu partean umeendako filmak ematea, esate baterako.

LUDOTEKA ZABALIK

Urriaren 6an zabaldu zuten ludoteka Gatzagako umeendako. Gurel arduratzen da ludotekaren kudeaketaz, eta aurten, arduradun berria hartu behar izan du. Aina Olabarrieta lezamarra da bera. Bi talde ditu Ainarak egunero. Txikiak, hau da, 6 urte artekoak, 10 dira eta 17:00etan joaten dira; sei nagusiak, oster, 18:00etan agertzen dira.

Garro jauregian dago ludoteka, eta, hotz handia egiten duela ikusita, berogailua jarri gura dute jauregian. Lanak laster hasiko dituzte.

AINARA OLABARRIETA/ Ludotekako begiralea

'Batzuetan umeek baino jolas gehiago egiten dut'

Bizkaitarra da Aina Olabarrieta, Lezamakoa. Irakasle izateko ikasketak egin ditu, HUHEZIn, eta orain, gustuko lana aurkitu du Leintz Gatzagan. Aina da ludoteka berriko begiralea.

Zer egiten du bizkaitar batek Leintz Gatzagan?

Duela lau urte etorri nintzen Eskoriatzara ikasketak egitera, eta horretan nentzela mutila aurkitu nuen hemen.

Eta orain, Leintz Gatzagako ludotekan. Zelan?

Langilea behar zutela jakin eta aurkeztu egin nintzen. Urriaren 6an zabaldu zen ludoteka eta ordutik hona lanean nabil. Hamabost ume inguru ditut nire kargu.

Zelako lana da?

Polita. Ordu bi bakarrik egoten naiz umeekin eta denbora guztian jolasean gaude. Batzuetan eurek baino jolas gehiago egiten dut nik.

Zertan egiten duzue jolas?

Adin txikiko umeei asko gustatzen zaie *aitatxoetara eta amatxoetara* jolas egitea.

Nagusiagoek, berriz, gogokoago dituzte eskulanak. Hori bai, egia esan behar badut, eurak argi guztiak itzali eta *gorde-gordeka* ibiliko liriteke arratsaldero!

Zelakoak dira Leintz Gatzagako umeak?

Herri txikia da eta herriko ume guztiak batera hazitakoak dira; eta adina kontuan hartu barik, guztiak dira lagunak. Beste

herri batzuetan ez bezala, hemen koadrila berean ibiltzen dira ume guztiak. Lagunek kontatzen didate beste ludoteka batzuetako esperientziak, eta esan dezaket Leintz Gatzagako ludoteka guztiz desberdina dela. Umeak, esaterako, egunero etortzen dira ludotekara, ez bakarrik astean behin edo birritan.

Eta gurasoak pozik daude?

Ez dakit, ba, oraindik ez naiz eta eurekin batu. Baina suposatzen dut pozik egongo direla.

Zer zara, zaintzailea ala hezitzailea?

Badakit ludoteka ez dela eskola, baina, hezitzaile izaten ahalegintzen naiz. Horretarako egin ditut ikasketak, behintzat.

Desabantailarik badu horrelako herri txiki bateko ludotekan lan egiteak?

Ez. Hona ez da inor beharturik etortzen, pozik etortzen dira. Hortaz, lantoki polita da. Gainera, neguan herriko umeek eskertuko dute horrelako leku bat; ez da hala?

Bai. Orain egoitza barruan egongo gara, baina udaberri aldean badaukat asmoa

kanpoan ere ekintzak egiteko.

Gabonetarako plan berezirik?

Bai, oraindik ez dakit zehatz zer egingo dugun, baina txikienkin antzerkitxo bat egin gura dut.

Bremen-eko musikariak izeneko ipuinaren bertsio bat gertatzeko asmatan nabil.



"Gatzagan koadrila berean ibiltzen dira ume guztiak"

ATREBENTZIAEZPADA/ Gustuko duzu ludoteka? Zer da gehien atsegin duzuna?



ASIER URIZAR
5 urte

Bai, asko. Autoekin lasterketak eginez jolas egitea gustatzen zait gehien. Horrez gain, marrazki batzuk ere egiten ditut noizean behin.



IRATI GAZTELU
4 urte

Bai. Ludotekan jostailu ugari daude, eta horiekin jolas egitea gustatzen zait gehien. Horrez gainera, Ainararekin jolas egitea ere atsegin dut.



JULEN ALVAREZ
6 urte

Bai. Egubakoitzetan izan ezik, arratsaldero joaten naiz ludotekara. Auto txikien lasterketak egitea dut gustuko. Etxean ere ibiltzen naiz jolasean.



JONE SASIAN
5 urte

Bai. Egunero joaten naiz ludotekara eta ederto pasatzen dut. Panpina batzuk daude, eta horiekin ibiltzen naiz jolasean. Marrazkiak ere egiten ditut.



LEIRE AZKOITIA ETA OHIANE
ANGULO 3 eta 4 urte

Bai, ia arratsaldero joaten gara ludotekara. Denok batera jolas egitea atsegin dugu. Gainera, Ainarak hankekin jolas egiteko joko berri bat ekarri digu.



GEMA LORENZO
6 urte

Bai, asko gustatzen zait eta arratsaldero joaten naiz. Puzzleak eta era guztietako jokoak gustatzen zaizkit gehien. Marrazki batzuk ere egiten ditut.

• Edertasun Gida •

“Orrazkera egokiarekin ile eskasena ere dotore uztea da ile apaintzaileon lana”

Nork ez du ezagutzen Sarasate kalean dagoen Maite ile apaindegia? Izan ere, 27 urte daramatza Maria Teresa Hidalgo ile apaintzaileak aretxabaletarrei ilea mozten eta orrazten.

ESPERIENTZIADUNA

Esperientziaduna da Mari Tere, baina ez zahartuta edo modaz pasatuta geratu dena. “Ile apaindegiko kontuetan esperientzia modaz pasatutako zerbaitekin lotzen dute, eta ez da hala” dio Mari Terek. Sarri-sarri egiten ditu ikastaroak, urtean hiru bat, eta ez beti leku berean.

Moda uneoro aldatzen doa; zer esanik ez ile kontuetako joerak, baina historia errepikatu egiten dela esaten dute, eta moda ere bai: “Ia guztia dago asmatua, hortaz, neu ilea mozten hasi nintzenean zeuden antzeko orrazkerak daude berriro modan. Eta zer da moda? Norberak eroan gura duena. Gaztetxoek, esaterako, famatuei begiratzen diete eta famatu honek edo hark bezalako ilea gura dute, askotan norberaren gutiz kontrakoa”.

NORBERAREN ILEA EZAGUTU

Ilea moztera doanari Mari Terek aholkuren bat edo beste ematen dio, betiere laguntzeko asmoarekin; baina argi dauka bezeroak eskatzen duena egiteko dagoela, eta



MIRARI ALTUBE

Mari Tere Hidalgok 27 urte daramatza ile apaintzaile lanean, eta bezero batzuk hasiera-hasieratik ditu.

ez ile apaintzaileak gura duena: “Zein orrazkerak edertuko duen ikusarazten diot bezeroari; hala ere, badakit bere zerbitzura nagoela, eta azken hitza bezeroak dauka beti”. Ile polita duena orraztea oso samurra da; bizirik gabeko ilea orraztea eta itxuran uztea, hori da zaila: “Ile gutxi edo zatarrá duenak badaki zelakoa duen, eta ile apaintzaileok ez diogu inori gogorarazi behar. Gure lana orrazkera egokiarekin ederto dagoela erakustea da”. Horrela, bada, garrantzitsuena norberak zein ile mota daukan ezagutzea da. Behin hori ezagututa, norberak badaki zein orrazkera egin dezakeen eta zein ez. Beste batek duen ilea gura izatea, horixe da gaur egungo akats handiena: kizkurra daukanak lisoa gura izatea, ez hori bakarrik, famatu hark bezain lisoa eta dotorea.

Gaur egun lehengo aldean hondatutako ile gutxi ikusten dela dio; izan ere, askoz produktu hobekak daude. “Etxean ez dago zertan aparteko tratamendurik egin, xanpu neutroarekin garbituta nahikoa da, ileak behar dituen olio gutziak izaten dituzte eta xanpu horiek. Hori bai, ilearendako ez erabili dutxako gelik”.

Moztu, orraztu, ilea hidratatzeko kosmetiko-geruzak jarri, ilea tindatu, kizkurtu... Hori eta gehiago egiten du Mari Tere Hidalgok Maite ile apaindegian.



MAITE
ILEAPAINDEGIA

Sarasate 1 behea
Tel. 943 79 59 05
ARETXABALETA

Gemes
estetika

Laser bidezko depilazioa
Makillajea

Ilargi plaza 1, Aretxabaleta. Tel. 943 79 99 18.



L-10
ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA

LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA



Irudi
Ile apaindegia

Errekabarren 20
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 80 90



TXIMAK
ILEAPAINDEGI MIXTOA
ETA ESTETIKA

Herriko Plaza 5, behea Tel. 943 79 83 64
ARETXABALETA



Kixkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 90 79.

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 79 86 21 telefonora

GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure etxea da




Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

